

**NEKAZARITZA, ARRANTZA
ETA ELIKADURA SAILA****5346**

AGINDUA, 2006ko irailaren 12koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, Osasun eta Kontsumo eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuen Agindua –plagizidei buruzko arautegia garatu eta aplikatzeko Batzorde Teknikoa eratzekoa– aldatzen duena.

Osasun eta Kontsumo eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuen 1990eko otsailaren 15eko Aginduaren bidez, plagizidei buruzko arautegia garatu eta aplikatzeko Batzorde Teknikoa eratu zen, Plagizidak Fabrikatu, Merkaturatu eta Erabiltzeko Arautegi Tekniko-Sanitarioaren esparruan. Arautegi hori azaroaren 30eko 3349/1983 Dekretuak onartu zuen.

Aipatutako Batzorde horren helburua arlo horretan eskumenak dituzten administrazioak eta organoak integratzea izan da. Batzordearen oinarrizko eginkizunen artean daude plagiziden establezimenduak eta zerbitzuak ofizialki erregistratzea, ikastaroak homologatzea eta plagizidekin tratamenduak egiteko gaikuntza egiaztatzea. Eginkizun horiek guztiak eraginkortasun handiz bete ditu Batzordeak orain arte.

Baina Batzordea jaio zenetik gaur egun arte igaro diren urteetan, arautegia nahiz landare-ekoizpenaren egoera asko aldatu dira.

Hala, arautegiei dagokienez, Landare Osasunaren Legeak arautegi orokor berria ezarri du esparru horretarako. Gainera, azaroaren 4ko 2163/1994 Errege Dekretuak Europako Erkidego osorako sistema bateratua ezarri zuen produktu fitosanitarioak merkaturatu eta erabiltzeko, eta, horretaz gain, produktu fitosanitarioak merkaturatzeari buruzko Kontseiluaren 91/414/EEE Zuzentaraua ezarri zuen. Bestalde, biozidak erregistratu, baimendu eta merkaturatzeko ebaluazio prozesua arautzeko buruzko urriaren 11ko 1054/2002 Errege Dekretuak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 16ko 98/8/EE Zuzentaraua ezarri zuen. Azkenik, abenduaren 21eko 257/2004 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortu zuen.

Nekazaritzako ekoizpenari dagokionez, jardueren koordinazioa eta gure lurraldean produktu fitosanitariook nola erabili eta maneiatu behar diren ondo jakitea bermatzen duten mekanismoak ezartzeko beharra agerian jartzen dute produktu fitosanitarioak erabiltzeak osasunean eta ingurumenean eragin dezakeen arriskuak, gero eta handiagoa den nekazaritza produktibitateak, produkzio seguruagoaren eta ingurumena errespetatzearen alde egiten duten produkzio sistema alternatiboen eskaeraren handitzeak, eta borroka integra-

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA,
PESCA Y ALIMENTACIÓN****5346**

ORDEN de 12 de septiembre de 2006, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, de modificación de la Orden de los Consejeros de Sanidad y Consumo y de Agricultura y Pesca por la que se crea la Comisión Técnica para el desarrollo y aplicación de la reglamentación sobre plaguicidas.

Mediante la Orden de 15 de febrero de 1990, de los Consejeros de Sanidad y Consumo y de Agricultura y Pesca, se creó la Comisión Técnica para el desarrollo y Aplicación de la Reglamentación sobre Plaguicidas en el marco de la Reglamentación Técnico-Sanitaria para la Fabricación, Comercialización y Utilización de Plaguicidas, aprobada por Real Decreto 3349/1983, de 30 de noviembre.

La citada Comisión tiene como finalidad integrar a las diversas administraciones y órganos con competencias en la materia y ha venido ejerciendo eficazmente sus funciones centradas básicamente en el ámbito de los registros oficiales de establecimientos y servicios plaguicidas, de la homologación de cursos y de la acreditación de la capacitación para realizar tratamientos con plaguicidas.

Sin embargo, tanto el marco normativo en el que la citada Comisión nació, como la realidad actual de la producción vegetal han ido evolucionando en los años que van desde entonces.

Así, por lo que se refiere a la vertiente normativa, la ley de Sanidad Vegetal ha establecido un nuevo marco normativo general en la materia. Además, por un lado, el Real Decreto 2163/1994, de 4 de noviembre, implanta el sistema armonizado comunitario para comercializar y utilizar productos fitosanitarios y traspone la Directiva 91/414/CEE del Consejo, relativa a la comercialización de productos fitosanitarios y el Real Decreto 1054/2002 de 11 de octubre, por el que se regula el proceso de evaluación para el registro, autorización y comercialización de biocidas, ha transpuesto la Directiva 98/8/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 16 de febrero. Finalmente el Decreto 257/2004, de 21 de diciembre, crea el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Biocidas del País Vasco.

Desde la vertiente de la producción agraria, el riesgo que para la salud y para el medioambiente provoca el uso de productos fitosanitarios, el cada vez mayor aumento de la productividad agrícola, una mayor demanda de sistemas de producción alternativos que abogan por una producción más segura y más respetuosa con el medioambiente, y los métodos de protección vegetal que utilizan estrategias de lucha integrada, hacen más patente la necesidad de implementar mecanismos que aseguren una coordinación de las actuaciones y un co-

tuko estrategiak erabiltzen dituzten landareen babeserako metodoek.

Beste alde batetik, landare-produkzio eta landare-osasun arloan Lurralde Historikoei eskumenak esleitzearen ondorioz, arlo horretan koordinazioa egotea behar-beharrezkoa da, lurralde bakoitzaren eremua gainditzen duten gaiak diren kasuetan. Bai Lurralde Historikoen artean, bai Lurralde Historikoen eta Gobernuaren artean bultzatu behar da koordinazioa, Gobernuak oraindik landare-ekoizpen eta landare-osasun arloko legeria garatzeko eskumena baitu.

Orain arte aipatu den guztiak beharra ezartzen du 1990eko otsailaren 15eko Aginduaren bitartez sortu zen Batzordea arau-aldaketa berrietara egokitzeko, bai eta Batzordearen eginkizunak eta eraketa aldatzeko ere. Hala, kontsulta organo gisa eta arlo fitosanitarioan eta landare-osasunaren arloan eskumena duten euskal administrazio guztien arteko koordinazio organo jardun ahaliko du Batzordeak.

Agindu hau prestatzeko, Foru Aldundiei eta Osasun Sailari egin zaie kontsulta.

Horrenbestez, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.— Izendapena.

Osasun eta Kontsumo eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuen 1990eko otsailaren 15eko Aginduaren 1. artikulua bidez sortu zen Plagizidei buruzko Arautegi Tekniko-Sanitarioa Garatu eta Aplikatzeko Batzorde Teknikoa hemendik aurrera «Landare Osasunaren Batzorde Tekniko Koordinatzailea» deituko da.

Bigarren artikulua.— Eginkizunak.

Osasun eta Kontsumo eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuen 1990eko otsailaren 15eko Aginduaren 2. artikulua honela idatzita geldituko da:

«Batzorde Tekniko Koordinatzaileak ondorengo eginkizun hauek izango ditu:

a) Aholkularitza, azterketa, ikerketa eta ekin-tza-proposamenak produktu fitosanitarioen arautegiaren aplikazioari eta, bereziki, gai hauei dagokienez:

- Produktu fitosanitarioen Establezimendu eta Zerbitzuen Erregistro Ofiziala.
- Produktu fitosanitarioen eta horiek saltzen dituzten denden kontrol eta ikuskatze ofiziala.
- Gaikuntzarako ikastaroak eta frogak.
- Erabilerak eta aplikazio sistemak.

b) Eskumeneko lurralde organo eta zerbitzuek landare-osasunaren arloan eta, bereziki, ondorengo arloetan egin beharreko jarduerak koordinatu eta horien berri eman:

nocimiento exhaustivo del uso y del correcto manejo de los productos fitosanitarios en nuestro territorio.

De otro lado, la atribución a los Territorios Históricos de las competencias en materia de producción y sanidad vegetal hace que sea necesaria una coordinación en esas materias en los casos en los que los asuntos superen los ámbitos territoriales de cada uno de los Territorios. Coordinación que ha de darse tanto entre los mismos Territorios Históricos como entre éstos y el Gobierno, que sigue conservando las competencias de desarrollo legislativo en materia de producción y sanidad vegetal.

Todo lo anterior determina la necesidad de adaptar la Comisión, creada por la Orden de 15 de febrero de 1990, a los cambios normativos producidos y de modificar sus funciones y composición para que ésta pueda actuar como órgano de consulta y de coordinación entre todas las administraciones vascas con competencia en materia de fitosanitarios y de sanidad vegetal.

Las Diputaciones Forales y el Departamento de Sanidad han sido consultados en la elaboración de la presente orden.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo primero.— Denominación.

La Comisión Técnica para el Desarrollo y Aplicación de la Reglamentación Técnico-sanitaria en materia de Plaguicidas que se crea por el artículo 1 de la Orden de 15 de febrero de 1990, de los Consejeros de Sanidad y Consumo y de Agricultura y Pesca pasa a denominarse «Comisión Técnica Coordinadora de Sanidad Vegetal».

Artículo segundo.— Funciones.

El artículo 2 de la Orden de 15 de febrero de 1990, de los Consejeros de Sanidad y Consumo y de Agricultura y Pesca, queda redactado como sigue:

«La Comisión Técnica Coordinadora tiene encomendadas las siguientes funciones:

a) Asesoramiento, estudio, análisis y propuestas de actuación en relación con la aplicación de la legislación en materia de productos fitosanitarios, y en especial en relación con:

- Registro Oficial de Establecimientos y Servicios de productos fitosanitarios.
- Inspección y control oficial de establecimientos y productos fitosanitarios.
- Cursos y pruebas de capacitación.
- Usos y sistemas de aplicación.

b) Informar y coordinar las actuaciones que en materia de sanidad vegetal hayan de acometer los órganos y servicios territoriales competentes, y en especial las relacionadas con:

- Landareak produzitu, salerosi eta biltegratzen dituzten langileen erregistro ofiziala.
- Erregistratutako enpresen ikuskapena eta kontrola.
- Hondakinen gehieneko kopuruak.
- Pasaporte fitosanitarioak.
- Berrogeialdiko gaixotasunak. Jarduteko protokoloak.

c) Batzordearen ordezkotza duten erakundeek eman diezaiokeen beste edozein ardura.»

Hirugarren artikulua.– Batzordekideak.

Osasun eta Kontsumo eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuen 1990eko otsailaren 15eko Aginduaren 3. artikulua honela idatzita geldituko da:

«1.– Hurrengo hauek izango dira Batzorde Teknikoa osatuko duten kideak:

a) Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria, edo hark eskuordeturikoa, lehendakari gisa jardungo duena.

b) Osasun Saileko Osasun Publikoko zuzendaria, edo hark eskuordeturikoa.

c) Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak izendatuko duen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko funtzionario bat, idazkari gisa jardungo duena.

d) Osasun Publikoko zuzendariak izendatuko duen Osasun Saileko funtzionario bat.

e) Foru Aldundi bakoitzak izendaturiko funtzionario bana.

Osasun Sailaren eskumeneko gaiak jorratzen direnean soilik joango dira Batzordeko bileretara b) eta d) idatz-zatietan aipatu diren batzordekideak.

2.– Batzordeari esleitu zaizkion gaiei eta eginkizunei lotuta proposamenak aztertu eta egiteko, berariazko komiteak sortu ahalko dira.

Komiteak Batzordeak proposatuta sortuko dira, egoki irizten zaien teknikari eta adituek osatu ahalko dituzte eta Batzordeko lehendakariak izendatuko ditu. Komiteek Batzordeari aurkeztu beharko dizkiete beren lanak eta proposamenak, Batzordeak onar ditzan.

3.– Nekazaritza arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako Sailetako edozein Zuzendaritzaren edo administrazio-organoren aholkuak nahiz laguntza eskatu ahalko du Batzordeak, bai eta egoki irizten den beste erakunde edo pertsonarena ere. Horiek bilertara joateko aukera izango dute, hitzarekin baina botorik gabe.»

– Registro oficial de productores, comerciantes y almacenistas de vegetales.

– Inspección y control de empresas registradas.

– Límites máximos de residuos.

– Pasaportes fitosanitarios.

– Enfermedades de cuarentena. Protocolos de actuación.

c) Cualquier otra que se le sea encomendada por los órganos en ella representados.»

Artículo tercero.– Composición.

El artículo 3 de la Orden de 15 de febrero de 1990, de los Consejeros de Sanidad y Consumo y de Agricultura y Pesca, queda redactado como sigue:

«1.– Formarán parte de la Comisión Técnica:

a) El Director de Agricultura y Ganadería del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, o persona en quien delegue, que actuará como Presidente.

b) El Director de Salud Pública, del Departamento de Sanidad, o persona en quien delegue.

c) Un funcionario del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, designado por el Director de Agricultura y Ganadería, que actuará como Secretario.

d) Un funcionario del Departamento de Sanidad designado por el Director de Salud Pública.

e) Un funcionario designado por cada una de las Diputaciones Forales.

Los componentes mencionados en las letras b) y d) únicamente asistirán a las reuniones de la Comisión cuando se traten cuestiones en las que el Departamento de Sanidad tenga algún tipo de competencia.

2.– Se podrán crear comités específicos para el estudio y formulación de propuestas en relación con las materias y funciones asignadas a la Comisión.

Los comités se crearán a propuesta de la Comisión, podrán estar formados por los técnicos y especialistas que se consideren adecuados y serán designados por el presidente de la Comisión. Los comités elevarán a la Comisión sus estudios y propuestas para su aprobación.

3.– La Comisión podrá requerir el asesoramiento y colaboración de cualquier Dirección u organismo administrativo de los Departamentos competentes en materia de agricultura del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales, así como de cualquier otra institución o persona que estime conveniente, quienes podrán asistir a sus reuniones con voz, pero sin voto.»

Laugarren artikulua.– Bilerak.

Osasun eta Kontsumo eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuen 1990eko otsailaren 15eko Aginduen 4. artikulua honela idatzita geldituko da:

«3.– Batzordea hiru hilabeterik behin bilduko da eskuarki, baina baita ere lehendakariak deituta edo Batzordean eskuordetza duen edozein erakundek eskatuta.»

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko irailaren 12a.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OSASUN SAILA**5347**

778/2006 EBAZPENA, irailaren 7koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Nicolas Guerra Zaldúa jauna Basurtoko ospitaleko zuzendariorde mediko kargutik kentzea xedatzen duena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 14ko 495/2003 Ebazpenaren bidez, Basurtuko Ospitaleko zuzendariorde mediko izendatu zen Nicolas Guerra Zaldúa jauna.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Nicolas Guerra Zaldúa jauna Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Basurtoko ospitaleko zuzendariorde mediko kargutik kentzea, aurrerantzean beste postu bat beteko baitu.

Artículo cuarto.– Reuniones.

El artículo 4 de la Orden de 15 de febrero de 1990, de los Consejeros de Sanidad y Consumo y de Agricultura y Pesca, queda redactado como sigue:

«3.– La Comisión se reunirá con carácter semestral y, en general, en cuantas ocasiones se consideren precisas, por convocatoria de su presidente o a requerimiento de cualquiera de las partes en ella representadas.»

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de septiembre de 2006.

El Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE SANIDAD**5347**

RESOLUCIÓN 778/2006, de 7 de septiembre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se declara el cese de D. Nicolas Guerra Zaldúa como Subdirector Médico del Hospital Basurto.

Mediante Resolución 495/2003, de 14 de noviembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se nombró a D. Nicolas Guerra Zaldúa como Subdirector Médico del Hospital Basurto.

Vista la Ley 8/1997, de 26 de junio, el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre y demás disposiciones de pertinente aplicación, esta Dirección General

RESUELVE:

Primero.– Cesar, por pasar a desempeñar otro puesto, a D. Nicolas Guerra Zaldúa como Subdirector Médico del Hospital Basurto, agradeciéndole los servicios prestados.